

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO - HUHEZI - HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEKO DOKTORETZA AURREKO LAGUNTZETARAKO PROGRAMA**

Eskoriatzan, 2017(e)ko ekainaren 1a

Sarrera

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), irakaskuntza-kooperatiba da, irabazi asmorik gabekoa eta herri onurakoa, eta jarduera nagusi bi ditu: hezkuntza eta ikerketa.

2003-2004 ikasturtean hirugarren zikloko ikasketak ezarri ziren, eta handik aurrera, gero eta ahalegin handiagoa egin da ikasleak doktoretza egitera bultzatzeko. Helburu horrekin abiarazi dira zenbait ekimen; besteak beste, laguntza-programa hau zehaztea, bat eginez ondoko Dekretuekin: urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuan onartutako Irakaskuntzako Ikertzaileen araubide juridikoa (BOE, otsailaren 3ko 29 zkia.), eta doktoretzako ikasketa ofizialak arautzen dituen 99/2011ko Errege Dekretua (2011ko otsailaren 10eko BOE).

Programa honek bere baitan biltzen ditu HUHEZIn doktoretza-ikasketetan zein ikerketa-ibilbidedun master ofizialetan matrikulatuta izanik, ikerkuntza-prestaketan dauden pertsonak, bertan adierazitako laguntzaren baten onuradun izanez gero. Bertan, programaren onuradunei dagozkien laguntza ekonomikoak, egoera juridikoak, eskubide eta betebeharrak zehazten dira, eta eskatzaileek jarraitu beharreko prozedurak aipatutako laguntzak jasotzeko, bai esleipen berrietan bai onartutakoak berritzeko.

DOKTORETZA AURREKO PROGRAMAREN OINARRIAK

Lehena.- Programaren helburua

HUHEZIk 2017-2018 ikasturterako laguntza berri bat eta hiru berritzapen aurreikusi ditu doktoretza-ikasketetan matrikulatuta edo matrikula prozesuan dauden ikasleentzat (beka edo kontratuan). Horien ezaugarriak ondoko ataletan deskribatzen dira.

Bigarrena.- Onuradunak

Atal honen lehenengo puntuan aurreikusitakoaren arabera laguntza hauen onuradunak izan daitezke, Doktorego programan matrikulatuta edo matrikulatzeko prozesuan dauden ikasleentzat.

Diru-laguntza hau eskatzeak berekin dakar, ezinbestean, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2017-2018 ikasturteari begira irekiko duen doktoretza-aurreko beken deialdira aurkeztea, bai eta, ondoren, beka horietarako hautespen-prozesuan onartua izatea. E. Jaurlaritzako beka ofiziala lortuz gero, uko egingo diote HUHEZiko bekari. Baldintza hau ez betetzeak berekin ekar dezake berehala baliogabetea HUHEZIk emandako diru-laguntza.

Hirugarrena.- Laguntzen ezaugarriak

3.1. Laguntzen iraupena

Laguntzen iraupena 12 hilabetekoa izango da, laguntza esleitzen den egunetik hasita, dagokion deialdiaren ebazpenaren arabera. Laguntza urtero berritu ahal izango da, beti ere Doktoretza-programako arduradunaren txosten positiboa jaso ostean, eta gehienez ere 36 hilabetera arte.

3.2. Laguntzen zenbatekoa, ordainketa-modua eta aseguruia

3.2.1. Laguntzen zenbatekoa eta ordainketa-modua

Programa honek laguntza-eredu bakarra biltzen du, bai diru-laguntzaren aldirako, bai kontratuaren aldirako:

A. Laguntza.- 2017-2018 ikasturterako laguntzaren zenbatekoa honakoa da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Laguntza	15.099,96 €/urteko (gordinak) (*)

(*) 2016/20167 ikasturteko zenbatekoa

Era berean, laguntza honen onuradunek eskubidea izango dute Doktoretza-programan matrikula gisa ordaindutakoaren %50 berreskuratzeko, ikasturte horretarako Kontseilu Errektoreak ezarritako prezioen arabera. Zenbateko horren itzulketa uztaila amaieran egingo da, beti ere Doktoretza-programako arduradunaren txosten positiboa jaso ostean. Horretarako, onuradunak ikasturtean zehar egindako ikerketa eta ekintza akademikoak jasotzen dituen memoria idatzi beharko du, eta Doktoretza-programako arduradunari bidali laguntza honetako ikasturte berriko deialdi datekin batera.

B. Ordainketa-modua.

Diru-laguntzak HUHEZIKo lan-arauetan eta xedapen ofizialetan ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

3.2.2. Asegurua

1. Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, prestakuntza jasotzen diharduelarik, programa honen laguntzak hartzen dituen ikertzailea inoren konturako langile bihurtuko da, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeari dagokionez, ondoko baldintzen arabera:

- a. Babes-ekintza Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean dagokiona izango da, langabezia-babesa salbu.
- b. Lan-istripuztat hartuko dira ikerketarako laguntza-programen onuradunak bere jarduerari dagozkion eginbehar eta funtzioetan pairatutakoak edo haien ondoriozkoak.
- c. Lan-gaixotasuntzat hartuko dira ikerketarako laguntza-programen onuradunak bere jarduerari dagozkion eginbehar eta funtzioen ondorioz pairatutakoak, baldin eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean gaixotasun profesionalen arau erregulatzailean jasota badaude, eta delako gaixotasuna aipatutako arauan aurreikusitakoaren arabera gaiek eragin badute.
- d. Gizarte Segurantzarako kotizazioetan, haren Erregimen Orokorrean arau arruntak ezarriko dira.
- e. HUHEZIK bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantasuneko Erregimen Orokorrean enpresarietat ezarritako eskubide eta betebeharrak.
- f. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeak, eta hari dagokion afiliazio eta/edo alta hartzeak, eta baita bajak ere, onuradunaren jardueraren hasiera edo amaiera egiaztatzen den datatik aurrera izango du eragina.

2. Kontratu hauetan, jasotako kopuru errealek osatuko du kotizazio-oinarria, gertakizun arruntengatik zein lan-istripu eta lan-gaixotasunengatik.

3.2.3. Eskola-asegurutik kanpo geratzea

Prestakuntza eta programa honen laguntza jasotzen ari den ikertzaileari ez zaio ezarriko otsailaren 16ko 270/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa, zeinen arabera, eskola-asegurua erregimenean sartzen diren Doktore titulua lortzera bideratutako unibertsitate-ikasketak egiten ari diren ikasleak (doktoretza-programak edo masterrak).

Laugarrena.- Prestatzen ari diren ikertzaileen eskubideak

Aipatutako 63/2006 E.D.an ezarritakoaren arabera, honakoak dira prestakuntza eta programa honen laguntza jasotzen ari diren ikertzaileen eskubide orokorrak:

- 1.- HUHEZIrrengandik bere ikasketak eta ikerketa-programak normaltasunez garatu ahal izateko lankidetzak eta laguntza jasotzea.
- 2.- Delako ikerketa garatzen ari den ikertaldean txertatuta egotea.
- 3.- Parte hartzea HUHEZIkko Gobernu- eta Ordezkaritza-organoetan, haren Estatutu eta Arauegietan aurreikusitako moduan; ikasle gisa diru-laguntzak dirauen epean, eta kontratudun langile gisa, kontratuak dirauen epean.
- 4.- Parte hartzea norbere zentrotik kanpoko bilera zientifikoetarako edo prestakuntza- eta hobekuntza-egonaldietarako egiten diren laguntza osagarrietarako deialdietan.
- 5.- Ikerketan garatutako prestaketatik eratorritako jabetza intelektualerako eskubideak baliatzea, egindako ekarpenaren arabera, eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabego Intelektualaren Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera. Aipatutako eskubideak egindako ikerketatik erator litezkeen beste eskubide batzuetatik bereziak izango dira, haiekiko bateragarriak eta metagarriak, talde-lanetik eratorritako baldintzatzaileentzako kalterik gabe, prestatzen ari den ikertzaileak taldeko ikerketa-proiektu batean hartzen duenean parte edo hari atxikita dagoenean.
- 6.- Prestakuntza jasotzen ari den ikertzaile bekadunak eskubidea dauka epe barruan jasotzeko bekari dagokion laguntza ekonomikoa, deialdi honetan ezarritako moduan, soldata-izaera izan gabe, eta orobat, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko eskubidea, hirugarren oinarrian, 3.2.2. atalean zehaztutako baldintzetan. Horrez gain, HUHEZIkko ikertzaileek duten opor-erregimen, baimen eta lizentziatarako eskubide baliokidea izango du.
- 7.- Prestakuntza jasotzen ari den kontratupeko ikertzaileak lan-izaeradun eskubideak ditu, eta orobat, gizarte segurantzari dagozkionak, izenpetutako kontratutik eratorritakoak.
- 8.- Prestakuntza jasotzen ari den ikertzaileari, dela bekadunari dela kontratupekoari, HUHEZIkko gainontzeko langileei eskaintzen zaizkien aseguru osagarri berak eskainiko zaizkio.
- 9.- Bekadunek, haien prestakuntzaren osagarri, sailaren irakaskuntza-lanetan laguntza emateko baimena eskatzen badute, Ikerketa eta Transferentzia Lantaldeak baimena emango die, aldez aurretik ikertaldearen koordinatzailea, Gune ko koordinatzailea eta Tesiaren zuzendaria / Tutorea ados agertzen badira. Gehienez, urtean 6 ECTS emango dituzte irakaskuntza-lanetan, horregatik bestelako ordainsaririk jaso gabe. Bestalde, lan horiek ez dute inolara ere laguntzen helburua (ikerkuntza eta prestakuntza, hain zuzen) lausotuko. Halakoetan, Fakultateko erregistroak irakaslanetan lagundu izanaren ziurtagiria emango dio bekadunari.

Bosgarrena.- Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen betebeharrak

Programa honen baitan prestakuntza jasotzen ari den ikertzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- 1.- Dagokion deialdian ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzea.
- 2.- Ikerketarako prestakuntza- eta espezializazio-programan aurreikusitako jarduerak gauzatzea, HUHEZIkko ikerketa-talde batean txertatuta.
- 3.- Atarramendu onez betetzea bai programa honetako helburuak, bai prestaketa akademikoari (masterra eta/edo doktoretza-programa) eta ikerketa-espezializazioari dagozkionak. Horretarako, aldiro-aldi egingo zaio jarraipena.
- 4.- HUHEZIkko Estatutu eta Barne Araudietan zehaztutakoari atxikitzea, bereziki lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari dagozkien arloetan.

5.- Bere gain hartzea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean txertatu izanaren ondoriozko betebeharrak, eta orobat, lan-kontratutik eratorritakoak, prestakuntza jasotzen ari den kontratupeko ikertzailearen kasuan.

6.- Ikertzaileak Prestatzeko Programaren bitartez jasotako laguntza dela eta, HUHEZLren finantziarioa aipatzea laguntza jaso den epean egindako lanaren ondorioz argitaratutako artikuluz guztietan, jardunaldietarako txostenetan eta gainontzeko argitalpenetan, doktoretza-tesia barne.

7.- Laguntzari uko eginez gero, HUHEZLri idatziz jakinaraztea, diru-laguntzaren zein kontratuaren garaian, arrazoiak idatziz azalduz. Idatzi hori Saileko zuzendariak, Proiektuaren zuzendariak edo ikertzailearen tutoreak izenpetu beharko du, laguntzari uko egin eta 10 eguneko epean.

8.- HUHEZLri jakinaraztea diru-laguntza jasotzen den bitartean izandako edozein gertakari diru-laguntzak etetearekin lotutakoa, behin-behineko ezintasun-egoerek (gaixotasuna edo istripua), haurdunaldiko arriskuak eta amatasun- edo aitatasun-baimenak eraginda.

9.- HUHEZLren eta ikaslearen artean edo HUHEZLren, ikaslearen eta doktoregaiaren ikerketarekiko interesa duten hirugarren erakundearen artean izenpetzen diren hitzarmenetatik eratorritako konfidentzialtasun-konpromisoak errespetatu eta betetzea.

Zazpigarrena.- Diru-laguntzatik kontratura igarotzea

Diru-laguntzaren alditik praktika-kontratuaren aldira igarotzea baldintza biren menpean dago:

1.- Ebaluazio Batzordeak (HUHEZLko Doktoretza Programaren Batzorde Akademikoa) bekadunak aurkeztutako txostenaren balioespina. Txostena tutoreak eta/edo tesi-zuzendariak/ek izenpetuta aurkeztu beharko da.

2.- Bi urteko beka-aldia agortu izana, kontuan hartuta ikasleak mota honetako diru-laguntza jaso dueneko epe guztiak, erakunde laguntzailea zein izan den gorabehera.

Zortzigarrena.- Laguntzak etetea

1.- Diru-laguntzak dirauen bitartean, prestakuntza jasotzen ari den ikertzaileak soilik izango du hura aldi baterako etetea eskubidea, baldin eta behin-behineko ezintasun-egoera (gaixotasuna edo istripua), haurdunaldiko arriskua eta amatasun- edo aitatasun-baimena dela kausa, ezar daitezkeen arauaren arabera.

2.- Kontratuak dirauen bitartean, Langileen Estatutuetako 45. eta 46. artikuluetan aurreikusitako arrazoiengatik kontratua eteteak ez du ekarriko laguntza luzatzea.

3.- Doktore-titulua eskuratzeak berekin ekarriko du laguntza etetea eta, ondorioz, haren gaineko eskubideak bukatzea. Era berean, laguntza hauek duten hastapen eta prestaketara begirako izaeragatik, ezin izango da programa honetako beste laguntzarik eskuratu hura indarrean dagoen bitartean, balizko eguneraketak barne.

4.- Onuradunak laguntzari uko eginez gero ere eten egingo da.

Bederatzigarrena.- Baliogabetzea: baliogabetzeko arrazoiak eta prozedura

Laguntza berehala baliogabetuko da baldin eta onuradunak ez baditu betetzen programa honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea, bere osotasunean edo zati batean; beste horrenbeste gertatuko da etekin-maila baxua erakusten badu doktoretza-tesiaren edo ikerketa-ibilbidedun master ofizialaren garapenean.

Baliogabetze-prozedurak ondoko faseak biltzen ditu:

1. Fasea: ahozko ohartarazpena, edo hala balegokio, ikerketa-taldeko koordinatzailearena, tutorearena eta/edo tesi zuzendari(ar)ena.
2. Fasea: idatzizko ohartarazpena, tesi-zuzendari(ar)en eskutik.
3. Fasea: idatzizko ohartarazpena, Doktoretza Programaren Koordinatzailearen eskutik.

1. eta 2. faseetan, prestakuntza jasotzen ari den ikertzaileak eskubidea izango du entzun diezaioten eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak aurkezteko. 1. eta 2. faseko ohartarazpen bakoitzak hilabeteko epea (30 egun natural) irekiko du doktoregaiak bere jarrera zuzentzeko edo etekin-maila hobetzeko.

Doktoretza Programako Koordinatzailearen jakinarazpena apelaezina izango da eta diru-laguntza automatikoki baliogabetzea ekarriko du.

Berritze-prozedura automatikoki etengo da, baldin eta doktoregaiak bere borondatez eskatzen badu baja izatea doktoregai moduan.

Hamargarrena.- Jakinarazi, Eskatu eta Erabakitzekeo prozedurak

10.1. Jakinarazpena

Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaile guztiek laguntza hauek eskura ditzaketela bermatzeko, beka-programa ondoko bideetatik jakinaraziko da: HUHEZLren web-gunea eta pertsonalizatutako mezu elektronikoa bidalita ikerketa-ibilbidedun master ofizialean matrikulatutakoei eta gradu edo lizentziako azken urteko ikasleei.

10.2. Eskabidea

Diru-laguntza hau eskatzeak berekin dakar, ezinbestean, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2017-2018 ikasturteari begira irekiko duen doktoretza-aurreko beken deialdira aurkeztea, bai eta, ondoren, beka horietarako hautespen-prozesuan onartua izatea. Horretarako, interesdunek, dagozkion epeak eta formak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren aipatu beken deialdirako eskabidea ondu eta aurkeztu beharko dute, eta beka hori eskuratzeko ebaluazio-prozesuan onartuak izan. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen (HUHEZLren) doktorego-aurreko laguntza-programaren hautespen-prozesutik kanpo geratuko dira.

10.3. Esleipena

Esleipena ebazteko, Ebaluazio Batzordea —HUHEZLren doktorego-programako Batzorde Akademikoak eratua— Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko beken 2017-2018 deialdian erabiliko dituen baremoetan eta egingo dituen ebaluazioetan oinarrituko da. Hain zuzen, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak deialdi horren ebazpenean jasoko dituen ebaluazio-irizpideei eta behin-betiko balorazioari (hautagai bakoitzaren puntuazio-ordenari) lotuko zatzaizkie.

Hamaikagarrena. Baldintzak

1. Esleitzen diren laguntzei dagokienez, erabakia idatziz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei eta HUHEZLren web-gunean argitaratuko dira.
2. Laguntza horien onuradunek 15 egun izango dituzte uko egiteko laguntzari, jakinarazpena jasotzen duten unetik; ukoa idatziz egin beharko dute. Horrela egin ezean, ez da onartuko.
3. Ondorio ekonomikoei dagokienez zein Gizarte Segurantzaren alta eman eta denbora kontatzeari dagokionez, ikasturteko lehenengo deialdian jasotako laguntza 2016ko urriaren 1ean sartuko da indarrean. Horretarako, lanean hasteko data idatziz egiaztatu beharko da; agirian data zehatza adieraziko da eta dagokion Saileko koordinatzaileak izenpetu beharko du.
4. Lanean hasteko 5 lanegunetik gorakoa atzerapenaren aurrean, eta ez badago egoki egiaztatutik badiresala arrazoiak lanean hastea atzeratzeko eskubidea ematen dutenak, ulertuko da onuradunak inplizituki egiten diola uko emandako laguntzari, berak ordaindu beharreko gastuen eta ukoa gauzatzeko eskatuko zaizkion tramiteen kalterik gabe.

Hamabigarrena.- Ukoak

Onuradunek aurrerago erabakiz gero uko egitea laguntzari, idatziz jakinarazi beharko diote beren erabakia HUHEZLko Doktorego Programako zuzendariari. Idatzia onuradunak berak eta tutoreak edo tesi-zuzendariak, edo hala badagokio, ikerketa-taldearen koordinatzaileak izenpetu beharko dute, eta bertan adierazi beharko dituzte ukoaren arrazoiak eta data, gehienez ere uko egin eta 10 lanegunera.

Hamahirugarrena.- Bateriaezintasunak

Laguntza hau jasotzeak ez dakar uko egin behar izatea bestelako beka bati edo antzeko laguntzei.

Hamalauugarrena.- Laguntzak berritzea

Laguntza urtebeterako berrituko da, aurreragoko berritzeen kalterik gabe, beti ere Doktoretza-programako arduradunaren txosten positiboa jaso ostean eta gehienez ere 36 hilabetera arte.

14.1 Eskaerak formalizatzea

Laguntza berritzeko eskatzeko, berritze-eskaera bat bidali beharko da HUHEZiko Idazkaritza Akademikora eta honako dokumentazioa gehituta:

- a) Eskaera-inprimakia
- b) Laguntza jaso zenetik edo azkenengoz berritu zenetik gauzatutako jarduera akademikoak eta ikerketa-jarduerak biltzen dituen memoria, eta hurrengo urterako lan-plangintza, kalifikazioen egiaztagiri akademikoaz batera, halakorik balego. Eskaera hori eskatzaileak berak izenpetu beharko du, eta tutoreak edo Ikerketa Proiektuaren zuzendariak.
- c) Lan Baimenaren kopia konpultsatua, bigarrenez edo hirugarrenez berritzen duten atzerritarren kasuan.

14.2. Eskaera egiteko lekua eta epeak

Deialdi hau HUHEZiren web-gunean argitaratzen denetik hasita, eskaerak eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko epea 11 egun naturalekoa izango da.

Oinarri hauetan eskatutako betetzen ez duten eskaerak edo dokumentazioa aurkeztuz gero, eskatzaileei 30 egun naturaleko epea emango zaie, akatsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkez ditzaten, adieraziz hala egin ezean ulertuko dela uko egiten diotela eskaerari.

14.3. Eskaeren ebazpena

Laguntzak berritzeko erabakia Ebaluazio Batzordeari dagokio, eskatzaileek 14.1. atalean adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatutakoan.

14.4. Eskaera onartu edo baztertu dela jakinaraztea

Eskaera onartzen den kasuetan, idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Hamabosgarrena.- Araudi aplikagarria

Beka-programa honetan zehazten ez denerako, aintzat hartuko da indarrean dagoen lege-araudiak eta HUHEZiren Estatutuek eta Barne Arautegiek ezarritakoa.

Eskoriatzan, 2017(e)ko ekainaren 1a

Eskaera-inprimakia

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO - HUHEZI - HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEKO DOKTORETZA AURREKO LAGUNTZETARAKO PROGRAMA**

Izenpetzen duenak (bi deitura eta izena):

Sexua(G,E): ____ NAN.: _____ Jaiotza-data: 19 ____ / ____ / ____ /

Helbidea: _____

PK: _____ Herria: _____

1. Telefono-zenbakia: _____ 2. Telefono-zenbakia: _____

e-posta: _____

ESKATZEN DU

Eman diezaiotela, erantsitako datuei jarraiki, **2017-2018 DOKTORETZA AURREKO LAGUNTZETARAKO PROGRAMAKO LAGUNTZA BERRIA:**

ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTUAK
1. Eskera-inprimakia beteta.
2. Laguntza jaso zenetik edo azkenengoz berritu zenetik gauzatutako jarduera akademikoak eta ikerketa-jarduerak biltzen dituen memoria, eta hurrengo urterako lan-plangintza, kalifikazioen egiaztagiri akademikoaz batera, halakorik balego. Eskera hori eskatzaileak berak eta bere tesi zuzendaria(k) izenpetu beharko du.
3. Lan Baimenaren kopia konpultsatua, bigarrenenez edo hirugarrenenez berritzen duten atzerritarren kasuan (balego).

.....-(e)n, 201..ko-aren-(e)(a)n.

Izpta.:

HUHEZIKO IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA ARLOKO ZUZENDARIA.